



# berreginez

## BIHOTZ ETA HILOBI

Mendekuaren bideetatik  
aritu gara urte gehiegi.  
Bidaia garratz honetan  
urrundu gara sorlekutik.

Arrotz herriak zelatan  
gastatu dira indar guztiak.  
Gure etxea babestu nahian  
ama zaintzeaz ahaztu gara.

Ez dakigu nor garen jada,  
zer bihurtu  
gara?

Itsaso zaharretan itotako Jainkosa  
berpiztuta dator gaur gure ondora.  
Ilbeteko gauan kontatu digu denoi  
gu geu garela ereindakoaren bihotz  
eta hilobi.

Zabaldu itzazu leihoak,  
zarata dago hor kanpoan.  
Gure sustraien garrasiak  
entzun ditugu oraingoan.

Azkenik konturatu gara,  
bazen garaia  
jada.

## CORAZÓN Y TUMBA

Hemos vagado demasiados años  
por los caminos de la venganza.  
En este amargo viaje  
nos hemos alejado de nuestra patria.

Espiando los pueblos extranjeros  
hemos agotado nuestras fuerzas.  
Queriendo proteger nuestra casa  
hemos olvidado cuidar de nuestra madre.

Ya no sabemos quién somos,  
en qué nos hemos convertido

La diosa ahogada en los antiguos mares  
resucitada vuelve a nuestro lado.  
En la noche de luna llena nos ha recordado  
que somos nosotros el corazón y la tumba  
de lo sembrado

Abre las ventanas,  
hay ruido ahí fuera.  
Esta vez sí hemos escuchado  
los gritos de nuestras raíces.

Nos hemos dado cuenta,  
por fin.